



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

BIKOTE EGONKORREN ERREGISTROAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA (NAO 40 zbk, 2002ko apirilak 1, eta NAO 44 zbk, 2014ko martxoak 5)

1. artikulua.– Altsasuko Udaleko Bikote egonkorren erregistroak administrazio izaera du. Bertan, ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartze guztiak inskribatu daitezke, Erregelamendu honetan ezarritako eran eta baldintzetan. Elkartzearen bidez beren borondatez Erregelamenduari atxikitzen zaizkionei aplikatu zaie.

2. artikulua.– Bikoteek, sexua kontuan izan gabe, erregistroan inskribatzeko eskatzen ahal dute, baldin eta haien adostasun libre eta osoarekin ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatu badute.

Gutxienez, elkartutako kide batek egon beharko du Altsasuko udalerrian erroldatua, bertan bizi ohi delako.

Halaber, bi kideek zinpeko aitortpena aurkeztu beharko dute, ez daudela ezkonduak ezta inskribatuak ere ezkondu gabeko bikote egonkorren bertze erregistroren batean.

Inskripzio eskabide bakoitzagatik irekiko da administrazio espediente bat. Bertan artxibatuko da eransten zaion dokumentazioa. Espediente horretan sartuko dira, orobat, sor litezkeen albo-inskripzioak, inskripzio osagarriak eta bajakoak, bai eta horien eranskinak.

3. artikulua.– Bikote bakoitzaren lehenbiziko inskripzioa egiteko, bi lagunek batera agertu beharko dute erregistroaz arduratzen den funtzionarioaren aurrera, edo notario-ahalorde berezia duen pertsona batek, haien artean ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzen dutela deklaratzeko.

Erregistroaren ardura duen funtzionarioak bertaratuak identifikatuko ditu bere nortasun agiri nazionalaren, pasaportearen, egoitza-baimenaren edo hori bermatzen duen beste edozein agiri ofizialen bidez, eta haien gaitasuna baloratuko du.

Ez da inskripziorik eginen bikoteko bat burujabetu gabeko adingabea bada, edo lerro zuzenean odolkidetasunezko edo adopzio bidezko ahaide badira, nahiz alboko lerrotik bigarren maila bitarteko odolkidetasunezko ahaide.

Bikoteko batek akats edo anomalia psikikorik badu, orduan ere ez da inskripziorik eginen. Halakoetan, medikuaren irizpena beharko du, ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartzea osatzeko gaitasuna aitortzen diona.

Era berean, ukatu eginen da inskripzioa bikoteko bat ezkondua badago edo ezkontzeko gaitasun gabea deklaratu bada.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.alsasu.net

alsasu@alsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Nolanahi ere, elkartzea bukatu edo iraungitzeko oharpenak egiteko, aski izanen da kide bakar batek hala eskatzea.

4. artikulua.– Bikote egonkorren erregistroan hitzez hitz idazten ahalko dira elkartzeetako kideen arteko giza nahiz ondare mailako harremanen gaineko kontratu erregulatzaileak.

Inskribatu ahalko dira, halaber, ezkontzaz kanpoko elkartzeari eragiten dioten beste egintza edo inguruabar batzuk.

5. artikulua.– 1. Bikote egonkorren erregistroa Udalaren Idazkaritzaren ardura izanen da.

2. Erregistroan inskribatutakoen intimitatea, norbanakoarena nahiz familiarena, babesteko ez zaio publizitaterik emanen idazpenen edukiari, salbu eta Erregistroaren arduradunak egiten dituen egiaztagiria, bikoteko edozein kidek, epaileek edo auzitegiek hala eskatu ondotik.

6. artikulua.– Aurreko artikuluetan aipatzen diren inskripzioak erregistratzeko Liburu Orokorra erabiliko da. Lehenbiziko inskripzioa izanen da bere oinarrizko inskripzioa, eta haren bazterrean jarriko dira gainerako idazpen guztiak.

Erregistroan Liburu Lagungarri bat ere izanen da, inskribatuen deituren arabera ordenaturik, eta bertan adieraziko da Liburu Orokorreko zein zenbakitan dauden inskribaturiko bikoteekin zerikusia duten idazpenak.

7. artikulua.– Egiten diren inskripzioak eta luzatzen diren ziurtagiriak doakoak izanen dira.

8. artikulua.– Bikote egonkorren udal erregistroan inskribatzen diren ezkontzaz kanpoko bizikidetasunezko elkartze guztiek ezkontza bidezko elkartzeen tratamendu bera izanen dute Altsasuko Udalean.

9. artikulua.– Bikote harremanaren edukiari, ondareko erantzukizunari, oinordetzaren araubideari eta araubide fiskalari nahiz funtzio publikokoari dagokienez, dagokion legerian xedatutakoa aplikatuko da